# UDAL ANTZOKIAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK.
# VITORIA-GASTEIZKO UDALA. 2024

# NORMAS DE CARÁCTER GENERAL PARA EL ACCESO A LOS TEATROS DE LA RED MUNICIPAL DE TEATROS.
# AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ. 2024

**UDAL ANTZOKIAK ERABILTZEKO ARAU OROKORRAK ANTZOKIAK**

Araudi honek Gasteizko Udaleko Udal Sareko antzokiei eragiten die: Beñat Etxepare Antzokia (Iparralde Gizarte Etxea), Federico García Lorca Antzokia (Lakua Gizarte Etxea) eta Jesús Ibáñez de Matauco Antzokia (Hegoalde Gizarte Etxea).

## 1.- ERABILTZEKO MODUA

1.1.-IDATZIZKO ESKAERA
Antzoki batean sartu ahal izateko, eskaera idatzi bat egin behar da, **gutxienez 30 egun** eta **gehienez 90** egun lehenago.
Principal antzokian –San Prudentzio kalea, 29–, antzokiak dauden gizarte etxeetan nahiz udal antzoki sarearen web orrian eskuratu ahal izango den inprimakia bete beharko da horretarako.

1.2.- ERAKUNDEKO ARDURADUNA. Inprimakian eskatzen diren **datu guztiak** bete beharko dira.
Bereziki garrantzitsua da erakunde eskatzailearen arduradunaren eta **antzokian egongo den pertsona**ren nortasuna adieraztea, ekitaldiaren arduradun gisa eta erakunde eskatzailearen solaskide gisa antzokietako arduradunekin.

ERAKUNDEAREN IZENPEA. Eskabidea izenpetu egin beharko da, eta araudia ezagutzen dela, onartzen dela eta errespetatzeko konpromisoa hartzen dela adierazi bertan.

1.3.- BEHAR TEKNIKOAK. Bai eskabidean bertan, bai eranskin batean, ekitaldirako behar diren baliabide teknikoak adierazi beharko dira (instalazio bakoitzak zer aukera eskaintzen dituen aintzat harturik).

Erakunde eskatzaileak pertsonal teknikoa badu, horren datuak, argien planoa (hala eskatzen duten ikuskizunetan) eta beste behar tekniko batzuk agertu beharko dira.

Antzerkia eskatzean, jarduketaren edo saiakuntzen uneren batean kea sortzea aurreikusten bada, suteak detektatzeko sistemak partzialki baliogabetzeko eskatu beharko da, emango zaion dokumentua betez.

1.4.- ORDUTEGIA: Eskabidean, jardueraren eta muntaketaren eta desmuntaketaren hasieraren ordutegiak adieraziko dira.

1.5.- UZTE EDO ALOKATZEAREN BAIEZTAPENA.
Udal Antzoki Sareak eskaerei erantzungo die, eta antzokirako sarbidea onartu edo, hala badagokio, ukatu egingo du.

1.6.- KUOTAK ORDAINTZEA. Antzokiak erabiltzekotan, dagozkien uzte edo alokatze tasak ordaindu beharko dira, 5. epigrafean adierazten denaren arabera. Aldez aurretik egin beharko da ordainketa, Udaleko Ogasun Sailean.

**NORMAS DE CARÁCTER GENERAL PARA EL ACCESO A LOS TEATROS DE LA RED MUNICIPAL TEATROS**

La presente normativa afecta a los teatros de la Red Municipal del Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz: Teatro Beñat Etxepare (Centro Cívico Iparralde), Teatro Federico García Lorca (Centro Cívico Lakua) y Teatro Jesús Ibáñez de Matauco (Centro Cívico Hegoalde).

**1. FORMA DE ACCESO**

1.1. –SOLICITUD POR ESCRITO
Para poder acceder a un teatro, se debe hacer una petición por escrito con un **mínimo de 30 días** y un **máximo de 90 días** de antelación. Para ello, se rellenará el impreso existente a tal efecto, a disposición de quienes estén interesados en el teatro Principal en la calle San Prudencio nº 29, en los Centros Cívicos donde se ubican los teatros y en la página web de la Red Municipal de Teatros.

1.2.- PERSONA RESPONSABLE DE LA ENTIDAD. La solicitud debe rellenarse **con todos los datos**.
Especialmente importante es señalar la identidad de la persona responsable de la entidad solicitante y de la **persona que vaya a estar presente en el teatro**, como responsable del evento y como interlocutora de la entidad solicitante con el personal responsable de los teatros.

FIRMA DE LA ENTIDAD. La entidad solicitante deberá firmar la solicitud en la que se indica que conoce y acepta la normativa y se compromete a respetarla.

1.3.- NECESIDADES TÉCNICAS. Se harán constar también en la solicitud o en un anexo las necesidades técnicas necesarias para el buen desarrollo de la actividad, teniendo en cuenta las dotaciones con que cuenta cada instalación.

Si la entidad solicitante dispone de personal técnico deberán figurar los datos del mismo, así como plano de luces (en aquellos espectáculos que así lo requieran) y otras necesidades técnicas.

Al solicitar el teatro, en caso de que en algún momento de la actuación o de los ensayos se prevea la generación de humo, se deberá solicitar la anulación parcial de los sistemas de detección de incendios cumplimentando el documento que le será facilitado.

1.4. HORARIOS: En la solicitud se indicarán los horarios de la actividad y del comienzo del montaje y desmontaje.

1.5.- CONFIRMACIÓN CESIÓN - ALQUILER.
La Red Municipal de Teatros responderá a las solicitudes, aprobando o en su caso denegando el acceso al teatro.

1.6.- PAGO DE CUOTAS. Para poder acceder a un teatro se deben abonar las tasas de cesión o alquiler correspondientes que se detallan en el epígrafe 5. El pago se realizará por adelantado mediante ingreso del importe correspondiente en el departamento de Hacienda del Ayuntamiento.

1.7.- LANGILE TEKNIKOEN ETA EGOKITZE-LANGILEEN ENPRESEI ORDAINTZEA.
Halaber, **ekitaldia hasi eta hurrengo 30 egunetan**, muntatzeko/desmuntatzeko eta egokitzeko esleipena duten enpresei ikuskizuna eszenaratzeko behar diren langileei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko die. Zerbitzu horiei dagozkien prezioak eranskinean agertzen direnak dira.

**OHARRA: Edozein arrazoi dela eta, programatutako jarduera egin aurreko 2 egun baliodunetan eteten duten erakundeek eskatutako langileei dagokien zenbatekoa ordaindu beharko diete zerbitzuen enpresa esleipendunei.**

1.8. HIRU URTETIK BEHERAKOAK EZIN DIRA SAREKO ANTZOKIETAN SARTU BEREN ADINERAKO EZ DIREN EMANALDIETAN, ANTOLATZAILEAK BERARIAZ ONARTZEN EZ BADU.

1.9. ETXE-ANIMALIAK EZIN DIRA SARTU.

**2.- ZERBITZUAK ETA ORDUTEGIAK**
Hauek dira antzokien erabilera-tasan sartzen diren oinarrizko zerbitzuak:

- Hornidurak: elektrizitatea, aire klimatizatua.
- Hornidura teknikoa
- Kamera beltza eta argiztapen orokorra dituen agertokia .

Ordu hauek izango dira antzokiak erabili ahal izateko:

- Goizez: 08:00etatik 15:00etara
- Arratsaldez: 15:00etatik 21:30era, ikusleentzat.
- Egun osoz: 08:00etatik 21:30era, ikusleentzat (eguerdian gutxienez 90 minutuko atsedenaldia izan behar da nahitaez. ).

**3.- ERABILTZE ARAU OROKORRAK**

3.1.- Antzokirako sarbidea baieztatu ondoren, Udal Antzoki Sarea erakunde eskatzailearekin harremanetan jarriko da jarduera garatzeko beharrezkoak diren alderdi guztiak zehazteko.

3.2.- Udal Antzokien Sareak ezarriko ditu, ikuskizunaren ezaugarrien arabera, ikuskizunaren garapenerako behar diren teknikariak eta egokitze-langileak. Horretarako, beharrezkoa da argien eta/edo premia teknikoen planoa eranstea.

**GARRANTZITSUA: SAREKO ANTZOKIAK ERABILTZEKO, MUNTAIA-DESMUNTAKETAREN KOORDINATZAILE TEKNIKO BAT ETA ARETOKO ARDURADUN BAT (EROSO JARTZEA, SEGURTASUNA) EGON BEHARKO DIRA, GUTXIENEZ.**

**Koordinatzaile teknikoa bertan ez badago, ezingo da antzokira sartu, inola ere, Antzokien Udal Sarearen berariazko baimena izan ezean. Era berean, aretoko arduradunaren figurarik gabe ezin izango da publikoarekin paserik egin. Erabaki hori, azken batean, Udal Antzoki Sareak hartuko du.**

1.7. PAGO A EMPRESAS DE PERSONAL TÉCNICO Y ACOMODACIÓN..
Así mismo deberá abonar en los siguientes **30 días desde la fecha del evento** a las empresas adjudicatarias de montaje/desmontaje y acomodación el importe correspondiente al personal necesario para la puesta en escena del espectáculo. Los precios correspondientes a estos servicios son los que aparecen en el anexo.

**IMPORTANTE: aquellas entidades que por los motivos que fueren suspendieran la actividad programada durante los 2 días hábiles anteriores a su celebración deberán abonar a las empresas adjudicatarias de los servicios el importe correspondiente al personal solicitado.**

1.8. NO SE PERMITE LA ENTRADA EN LOS TEATROS DE LA RED A MENORES DE TRES AÑOS EN LAS REPRESENTACIONES NO DESTINADAS A SU EDAD, SALVO CONFORMIDAD EXPRESA DEL ORGANIZADOR.

1.9. NO SE PERMITE EL ACCESO DE ANIMALES DE COMPAÑÍA.

**2. SERVICIOS Y HORARIOS**
Los servicios básicos incluidos en la tasa de utilización de los teatros son los siguientes:

- Suministros: electricidad, aire climatizado.
- Dotación técnica
- Escenario con cámara negra e iluminación general.

El horario de utilización de los teatros deberá ajustarse a las siguientes franjas horarias:

- Matinal: de 08:00 a 15:00 h
- Tarde: de 15:00 a 21:30 h. para el público
- Día completo: de 08:00 a 21:30 h para el público (con una franja obligatoria de al menos 90 minutos de descanso a mediodía):

**3. NORMAS GENERALES DE UTILIZACIÓN**

3.1.- Una vez confirmado el acceso al teatro, la Red Municipal de Teatros se pondrá en contacto con la entidad solicitante para concretar todos los aspectos necesarios para el desarrollo de la actividad.

3.2.- La Red Municipal de Teatros establecerá en función de las características del espectáculo el personal técnico y de acomodación necesario para el desarrollo del mismo. Para ello se hace necesario adjuntar plano de luces y/o necesidades técnicas.

**IMPORTANTE: LA UTILIZACIÓN DE LOS TEATROS DE LA RED CONTARÁ SIEMPRE Y COMO MÍNIMO CON LA PRESENCIA DE UN/A COORDINADOR/A TÉCNICO RESPONSABLE DEL MONTAJE-DESMONTAJE Y UN/A RESPONSABLE DE SALA (ACOMODACIÓN, SEGURIDAD…)**

**Sin la presencia del Coordinador Técnico no se permitirá, bajo ningún concepto, el acceso al teatro, salvo autorización expresa de la Red Municipal de Teatros. Del mismo modo, no se podrá hacer un pase con público sin la figura del responsable de sala. Esa decisión será tomada en última instancia por la Red Municipal de Teatros.**

3.3.- Segurtasun-arauak beteko dituela hitz eman beharko du eskabidea egiten duen elkarteak, bereziki sua erabiltzeari eta ate, korridore eta larrialdietarako irteerak oztopatzeari dagozkienetan, eta aretozain eta koordinatzaileek ematen dizkioten jarraibideak oro aintzat hartu beharko ditu.
Debekatuta dago ikuskizunetan animaliak erabiltzea.

3.4.- Ezin izango da aretoan baimendutako gehieneko edukiera gainditu. Horretarako, erakunde eskatzaileak sarrerak edo gonbidapenak banatzea gomendatzen da.

3.5.- Hona gehienezko pertsona-kopuruak:

BEÑAT ETXEPARE ANTZOKIA: 284 (2 mugikortasun murriztua)
FEDERICO GARCÍA LORCA ANTZOKIA: 237 (4 mugik.murriz.)
JESÚS IBÁÑEZ DE MATAUCO ANTZOKIA: 296 (6 mugik.murriz.)

3.6.- Jarduera eszenikoaren kasuan, debekatuta dago ikuskizunak bideo-entzunaldian grabatzea emanaldietan, baimenik gabe. Baimena emanez gero, kamerak eta ekipoak horretarako adierazitako lekuetan kokatuko dira, ebakuazioari buruzko araudia betez eta jendea ez asaldatzen saiatuz..

3.7.- Eskabidea egiten duen elkarteak eskatzen zaizkion fitxak bete beharko ditu. Halaber, hitzartutako ordutegiak errespetatu beharko ditu.

**3.8.- Inolaz ere ezingo da sarrerarik kobratu Udal antzoki sareak berariaz baimena ematen ez badu.** Ekitaldietan parte hartzeko kuota ordaintzea eskatzen bada, instalazioa erabiltzeko aukera eman nahiz ukatu ahal izango du Udal Antzoki Sareak.

3.9.- Egin nahi den ekitaldirako egokien irizten dion antzokia erabilarazi ahal izango dio Udal Antzoki Sareak eskatzaileari.

3.10. Udal Antzoki Sareak ez du aparkalekurik bere istalazioetan. Deskarga amaitu ondoren, materiala garraiatzeko erabiltzen diren ibilgailuek zamalanetarako kaia utzi beharko dute.

3.11.- Arau hauek direla-eta edozein salbuespen egitekotan, Udal Antzoki Sareko arduradunaren baimena beharko da.

**4.- ESKABIDEA EGITEN DUEN ELKARTEAREN BETEBEHARRAK**

4.1.- Ikuskizunera joaten diren pertsona guztiek sarrera edo gonbidapena izan beharko dute, adina edozein dela ere, eta edukiera gisa zenbatuko dira.
4.2.- Eskabidea egin duen elkartearen ardura izango da antzokia erabiltzearen ondorioz sortu daitezken erreklamazioei eta kaltei erantzutea.

**5.- ERABILTZE MOTAK**

5.1.- Alokatzea.
Modalitate hau arte eszenikoetako erakunde eta talde profesionalek antolatutako arte eszenikoetako jarduerei aplikatuko zaie, baita helburu komertziala duten beste jarduera

3.3.- La entidad solicitante se compromete a respetar las normas de seguridad, en especial las referidas a uso de fuego y taponamiento de puertas, pasillos y salidas de emergencia y tendrá en cuenta todas las indicaciones que les haga el personal de acomodación y de coordinación técnica.
Queda prohibido el uso de animales en los espectáculos.

3.4.- En ningún caso se podrá sobrepasar el aforo máximo permitido en la sala. Para ello, se recomienda el reparto de entradas o invitaciones por parte de la entidad solicitante.

3.5. Los aforos son:

TEATRO BEÑAT ETXEPARE: 284 (2 movilidad reducida)
TEATRO FEDERICO GARCIA LORCA: 250 (4 movilidad reduc.)
TEATRO JESUS IBAÑEZ DE MATAUCO: 296 (6 mov. reducida)

3.6.- En el caso de actividad escénica, queda prohibida la grabación de los espectáculos en audio-vídeo durante las representaciones, sin autorización. En caso de autorizarse, las cámaras y equipos se ubicarán en los lugares indicados para ello, intentando no perturbar al público y siempre cumpliendo con la normativa en materia de evacuación.

3.7.- La entidad solicitante deberá rellenar por completo las fichas que se le soliciten, respetando en todo momento los horarios que se pacten.

**3.8.- En ningún caso se permitirá el cobro de entrada sin permiso específico de la Red Municipal de Teatros.** En las actividades que exijan para su desarrollo el pago de cuotas por los asistentes, la Red Municipal de Teatros se reserva la aprobación o no del uso de la instalación.

3.9.- La Red Municipal de Teatros se reserva el derecho a derivar al solicitante al teatro que considere más apropiado para la actividad a realizar.

3.10. La Red Municipal de Teatros no dispone de plazas de aparcamiento en sus instalaciones. Una vez finalizada la descarga, los vehículos deberán abandonar el muelle de carga.

3.11.-Cualquier excepción a estas normas deberá ser autorizada por el/la Responsable de la Red Municipal de Teatros.

**4. OBLIGACIONES DE LA ENTIDAD SOLICITANTE**

4.1.- Todas las personas que asistan al espectáculo deberán tener entrada o invitación independientemente de su edad, y se contabilizarán como aforo.
4.2.- La entidad solicitante se hará responsable de todas las reclamaciones que pudieran realizarse derivadas de su utilización del teatro y de los desperfectos que pudieran ocasionarse.

**5. MODALIDADES DE ACCESO**

5.1. Alquiler.
Esta modalidad se aplicará a actividades de artes escénicas organizadas por entidades y grupos profesionales de artes escénicas así como a otras actividades que tengan un fin

batzuei ere.

Tasa:

- Muntaketa eta emanaldi 1, egun osoa: 530,70 €
- Muntaketa eta emanaldi 1, goizez edo arratsaldez: 265,30 €
- Muntaketa eta/edo entsegua, egun osoa: 265,30 €
- Muntaketa eta/edo entsegua, goizez edo arratsaldez: 132,70 €
- Aparteko funtzio bakoitzeko: 132,70 €

5.2.- Uztea.
Izaera afizionatua duten arte eszenikoetako kultura-talde eta -elkarteen kasuan aplikatuko da, helburu komertzialik gabe, bai eta gizarte-, kultura- eta/edo interes publikoko jarduera asoziatibo edo pribatuetan ere.

EMANALDI **BAKARRERAKO** PREZIOAK. TASA

- Goizez edo arratsaldez: 74,20 €.
- Egun osoa: 148,70 €.
- Aparteko emanaldi bakoitzeko: 53 €.

5.3.- Salbuespenak
Tasak ordaintzetik salbuesteko eskubidea izango dute arte eszenikoetan aritzen diren erakundeek, bai eta elkarte-, kultura-, gizarte- eta/edo interes publikoko erakundeek ere, baldin eta Vitoria-Gasteizko Udalarekin lankidetza-hitzarmena edo -akordioa sinatuta badute, edo jarduera Antzokien Udal Sarearekin zuzenean lotuta badago (entseguak, egoitzak eta bestelakoak), betiere hitzarmen edo akordio horretan adierazitako helburuak garatzeko bada.

Salbuespen hau aplikatu, areto-zaintzak eta muntatze eta desmuntatze lanek sortutako gastuei aurre egin beharko die dena delako erakundeek, baita sortzen diren bestelako gastuei ere.

**Oharra: arau hauek betetzen ez badira, Udal Antzokien Sareak dagozkion zehapen-ekintzak hasi ahal izango ditu, Sareko edozein antzokitarako etorkizuneko eskaeretan sarbidea ukatzea barne. Era berean, areto- eta muntaia-zerbitzuen enpresa esleipendunek egokitzat jotzen dituzten legezko ekintzak egin ahal izango dituzte.**

Vitoria-Gasteizen,
UDAL ANTZOKI SAREA

comercial.

Tasas

- Montaje y 1 función, día completo: 530,70 €
- Montaje y 1 función, matinal o tarde: 265,30 €
- Montaje y/o ensayo, día completo: 265,30 €
- Montaje y/o ensayo, matinal o tarde: 132,70 €
- Por cada función extra: 132,70 €

5.2.- Cesión.
Se aplicará en el caso de grupos y asociaciones culturales de artes escénicas con carácter aficionado, sin finalidad comercial, así como a actividades asociativas o privadas de carácter social, cultural y/o de interés público:

PRECIOS PARA UNA **ÚNICA** FUNCIÓN. TASA

- Matinal o tarde: 74,20 €.
- Día completo: 148,70 €.
- Por cada función extra: 53 €.

5.3.- Exenciones
Tendrán derecho a exención de las tasas aquellas entidades dedicadas a las artes escénicas, así como aquellas de carácter asociativo, cultural, social y /o de interés público que tengan firmado convenio o acuerdo de colaboración con el Ayuntamiento de Vitoria- Gasteiz o cuya actividad esté relacionada directamente con la Red Municipal de Teatros (ensayos, residencias y otros), siempre que sea para el desarrollo de los fines señalados en dicho convenio o acuerdo.

En dicha modalidad de exención de tasas las entidades deberán hacer frente a los gastos de acomodación, montaje desmontaje así como otros gastos derivados que pudiera generar el uso del espacio.

**Importante: en caso de incumplimiento de las presentes normas, la Red Municipal de Teatros podrá iniciar las acciones sancionadoras pertinentes, incluida la denegación del acceso en futuras solicitudes para cualquiera de los teatros de la Red. Asimismo, las empresas adjudicatarias de los servicios de sala y montaje podrán llevar a cabo las acciones legales que estimen oportunas.**

Vitoria-Gasteiz,
LA RED MUNICIPAL DE TEATROS,

# ERANSKINA / ANEXO

## ENPRESEN PREZIOAK / PRECIOS EMPRESAS

### 1.-MUNTATZE ETA DESMUNTATZE ENPRESA / EMPRESA DE MONTAJE Y DESMONTAJE

Enpresa / Empresa: AISILAN

| | ZERBITZUKO KOORD COORD.SERVICIO | TEKNIKARI ESPEZIALISTA TÉCNICO ESPECIALISTA | ZAMALANEN KOORD. COORD.CARGA Y DESCARGA | ZAMALANETAKO LANGILEAK PERSONAL CARGA Y DESCARGA |
|---|---|---|---|---|
| | € / h | € / h | € / h | € / h |
| ORDU MOTA / TIPO DE HORA | FAKTURA / FACTURA | FAKTURA / FACTURA | FAKTURA / FACTURA | FAKTURA / FACTURA |
| Laneguneko Ordua / Laborable | 27,66 | 27,17 | 25,65 | 24,70 |
| Gaueko Ordua /Nocturna | 30,15 | 29,62 | 27,96 | 26,92 |
| Jaieguneko Ordua / Festiva | 30,15 | 29,62 | 27,96 | 26,92 |

**Prezioak BEZik gabe. / Los precios son SIN IVA incluido**

### 2. ARETO-ZAINTZA ETA KONTROL ENPRESA / EMPRESA DE ACOMODACIÓN Y CONTROL

Enpresa / Empresa: EULEN Servicios Auxiliares

| | ARETO ARDURADUNA / RESPONSABLE DE SALA | ARETOZAINAK / ACOMODACIÓN |
|---|---|---|
| | € / h | € / h |
| | FAKTURA / FACTURA | FAKTURA / FACTURA |
| Lanegunak EGUNEZ / Laborable DIA | 28,06 | 22,60 |
| Lanegunak GAUEZ / Laborable NOCHE | 35,07 | 28,25 |
| Igande eta jaiegunak / Domingos y festivos | 32,10 | 26,65 |
| Igande eta jaiegunak GAUEZ / Domingos y festivos NOCHE | 39,10 | 32,30 |

**Prezioak BEZik gabe / Los precios son SIN IVA incluido**